



Askatasun bidea. Le chemin de la liberté. Camino de la Libertad. Freedom Trail.

“COMÈTE” SAREAREN XXII. OROITZAPENEZKO IBILALDIA EUSKAL HERRIAN

2023ko IRAILAren 8, 9 eta 10ean

II. Mundu Gerraren urteetan, nazien aurkako hainbat erakunde klandestinok euskal muga aukeratu zuten nazien jazarpenetik erresistente eta iheslariak Europa okupatutik aliatuen aldera iristen laguntzeko, Madrilen zeuden zerbitzu eta enbaxada aliatuen sostenguarekin. Hauetako bat “Comète” sarea zen, hegazkinlari aliatuak jasotzen espezializatutakoa. Hegazkinlariak Erresuma Batutik etengabe ateratzen ziren nazien edo hauek hartutako Europako helburu estrategikoak bonbardatzera. Hegazkin horietako asko Holandara, Belgikara edo Frantziara joaterakoan edo etortzerakoan lurrera botatzen zituzten, eta hegazkinlariak bizirik ateratzen baziren, nazien esku erortzeko arrisku handia zuten, baita ondorio latzak pairatzeko ere: fusilamendua, tortura eta, edozein modutan, kontzentrazio-esparrua.

“Comète” sarea hainbat urtez aritu zen hegazkinlari hauek lurreratzen zituzten tokietatik jasotzen eta babesten. Ondoren, ofizialki “neutrala” zen Frankoren Espainiara bideratzen zituen sekretuki, eta han agente diplomatiko aliatuen eskuetan utzi, zeinak Gibraltarretik hegazkinlariak etxeratzen baitzituzten. Bide arriskutsu honetan, iheslariak Euskal Herria zeharkatu behar zuten, eta honetarako guardia espainiarrek zein alemaniarrek zaintzen zuten muga gurutzatu. Bidaia maiz Bruselan hasten zen, gero Parisera heldu eta muga igaro aurretik Angelun, Donibane Lohitzunen edo Ziburun elkartzen ziren. Jarraian, bai Bidasoa ibaia gurutzatuz, bai Baztanetik, muga gainditzen zuten.



1941ean ihes-sarea antolatu zuen talde txikia Georges De Bliqui, Arnold Deppé eta Andrée De Jongh “Dedée” belgikar gazteek osatzen zuten, besteak beste. Azken bi hauek Belgikatik Euskal Herrira etorri ziren, eta hemen, frankismoa zela eta erbesteratutako euskal talde batekin harremanetan jarri eta hauek lagundu zieten muga zeharkatzen eta iheslariak babesten. Hala, urte horretan, eta euskal taldearen laguntzarekin, “Dedée” Bilboko britainiar Kotsulatuan azaldu zen eta herrialde hauetako zerbitzu sekretuekin harremanak hasi zituen “Comète” erakundea sendotu eta egituratzeko, zeinak, hainbat gora-behera izanagatik, bizirik iraun baitzuen bere betekizunari eutsirik 1944ko abuztuan Frantziaren okupazioa amaitu zen arte.

Jada badira 82 urte “Comète” sortu zela. Hegazkinlariak eta “Comète” sareko kideak eta mugalariak gogoratzearren, hauetako asko euskal herritarrak, aspalditik euren bideak errepikatzen ditugu urtero asteburu bateko ibilaldian. Aurten Ziburutik abiatuko gara eta Bidasoa ibaia gurutzatuko dugu, beraiek egiten zuten leku beretik, Oiartzunera iritsi arte. Betiere erantsirik doan egitarauan azaltzen den moduan, nazi-faxismoaren aurka ikuspegi eta nazionalitate ezberdinetatik esku hartu zutenei omenaldia eskainiko diegu ibilaldi honetan, baita euren lana, esfortzua eta arriskua gogoratu ere.

Ibilaldian parte hartu nahi duen orok jarraian azaltzen den moduan egin dezake.



EGITARAUA

GIPUZKOATIK ABIATZEN DIRENENTZAT

"Comète" sarearen ibilaldia Euskal Herrian

2023ko irailaren 9an eta 10ean

Omenezko ibilaldia Ziburutik Oiartzunera "Comète" sareko mugalariak eta II. Mundu Gerran hegazkinari aliatuek erabilitako ibilbidetik izango da, "Les amis du réseau Comète" eta Comète Baztan-Bidasoa elkarteek antolatua, Urdaburu Mendizale Elkartearen laguntzarekin.

Ibilaldia irailean gauzatuko da, 9 eta 10 egunetan. Ohitura den bezala, larunbatak 9 hasiko da Ziburun, Sokoako hilerrian. Bertan Kattalin Aguirre, Joséphine Castet-Aguirre, Marie-Christine Castet eta Florentino Goikoetxea "Comète"-eko kide eta mugalariak daude hilobiratuak. Omenaldia egingo diegu, eta jarraian ibilaldia hasiko dugu. Gure bidean, Bidegain-berri baserria ikusiko dugu, hain garrantzitsua izan zena sarearen historian, bertan hegazkinlariak babesten baitzituzten Bidasoa zeharkatu aurretik. Hain juxtu, Urruñara iristean Frantzia Usandizaga eta Juan Manuel Larburu ekarriko ditugu gogora, sareko kideak eta alemaniarrek baserri horretan atxilotuak.

Ibilaldia jarraituko dugu Antoine d'Ursel eta James Burch-en omenez jarritako esteletara iritsi arte, sareko kide belgikarra eta hegazkinlari amerikarra, hurrenez hurren. Han omenaldia egingo zaie Biriaturko herriko etxearekin batera. Ondoren, Bidasoa ibaiara jaitsi eta gurutzatuko dugu, San Miguel tren geltoki zaharrera iritsi arte. Askari hotza izango dugu bertan.

Igandeak 10ean ibilbidea berrekingo dugu. San Miguelen hasi eta Erlaitzera igoko gara, Oiartzunera iritsi arte. Han Sarobe baserrian ekitaldia izango dugu. Baserri honetan Iriarte-Berasategi familiak hegazkinlariak jasotzen eta babesten zituen. Ekitaldia ondoren, Tolare



jatetxe ondoko aparkalekura jaitsiko gara. Han autobusa hartu eta Hernanira iritsiko gara, Iparragirre sagardotegian bazkaltzeko. Baserri honetan Florentino Goikoetxea mugalariaren ama bizi izan zen. Gainera, ondoan Alzueta baserria dago, Florentino beraren jaiotetxea, eta gertu ere monumentua dago “Comète” sareko hernaniarren omenez (Florentino Goikoetxea, Juan Manuel Larburu, Martin Errazkin eta Tomas Anabitarte). Astirik izanez gero, toki hauetan geldialdia egingo dugu.

Larunbata irailak 9

Ordua	Ekintza	Tokia
7:00	Karabeletik (Hernani) irteera busean	https://goo.gl/maps/9nZwqK1wo6vyyMFb8
7:15	Errenteriatik irteera busean (Papresa fabrika aurrean)	https://goo.gl/maps/aWZwAZHD5VGq8TmG6
8:00	Ziburuko Sokoako hilerrira iritsiera eta omenaldiaren hasiera - Kattalin Aguirre, Joséphine Castet-Aguirre, Marie-Christine Castet, Florentino Goikoetxea	https://goo.gl/maps/ZXfdM95731NaVDwP8
8:30	Sokoako hilerriko omenaldiaren bukatzea	
9:00	Ibilaldiaren hasiera	
10:30	Omenaldia Urruñan – Frantzia Usandizaga, Juan Manuel Larburu	
15:00	Antoine d’Ursel eta James Burch-en omenezko hilarrietan ekitaldia, Biriatuko herriko etxearen parte-hartzearekin	https://goo.gl/maps/sKMh1nfGVLoKSjMa9
16:30	Bidasoa ibaiaren gurutzatzea	
17:00	Merienda hotza San Miguel tren geltoki ohian	https://goo.gl/maps/RrRKpV97Q9uXGUXm8
18:30	Itzulerako autobusa Errenteria eta Hernanira	



Igandea irailak 10

Ordua	Ekintza	Tokia
7:00	Karabeletik (Hernani) irteera busean	https://goo.gl/maps/9nZwqK1wo6vyyMFb8
7:15	Errenteriatik irteera busean (Papresa fabrika aurrean)	https://goo.gl/maps/aWZwAZHD5VGq8TmG6
8:00	Irteera San Miguel tren geltoki ohitik, Bidasoa ibaiaren ondoan	https://goo.gl/maps/RrRKpV97Q9uxGUXm8
13:00	Sarobera iritsiera (Oiartzun). Ekitaldi txikia eta askaria Iriarte familiarekin	https://goo.gl/maps/PVz6s7fmqk1ro1qW8
13:50	Sarobetik irteera eta autobusa hartzea Tolarerren aparkalekuan	https://goo.gl/maps/1vQebH1QcC4NzKyE8
14:20	"Comète" sareko kideen omenezko monumentutik igarotzea (Osinaga, Hernani)	https://goo.gl/maps/ZRqjbKS5kyLg7Tfw6
14:30	Iparragirre Sagardotegian bazkaria (Hernani)	https://goo.gl/maps/EoZNzCrFXSeyY2Jy9
18:30	Itzulerako autobusa Karabelera (Hernani) eta Errenteriarara	



IZEN-EMATEKO GOMENDIOAK

Ibilaldietan joan-etorri egokiak bermatzeko eta bazkarian zenbat izango garen jakiteko, izena eman behar da aldez aurretik. Gainera, autobus zerbitzu bat antolatuko da larunbat zein igandean, bai ibilaldiak hasiko diren tokietara iristeko, bai ibilaldia bukatzean itzultzeko ere. Igandean ere autobus zerbitzu hau erabiliko da bazkalduko den tokira iristeko. Zerbitzu hau erabili nahi izanez gero, larunbatean MS5 aukera hautatu beharko da; eta igandean MD4 aukera (bazkaltzen geratu nahi baduzu) edo AD5 aukera (ez bazara bazkarira geratuko). Izena eman behar da abuztuak 1 baino lehen.

Irailak 9 Larunbata

- *Ibiltarientzat: San Miguel-en Merienda Soilik* *SS3Aukera - 15€*
- *Ibiltarientzat: Busa(Gipuzkoa)+San Miguel-en Merienda* *MS5Aukera - 30€*

Irailak 10 Igandea

- *Bazkaria Iparragirre Sagardotegian Soilik* *D3 Aukera - 35 €*
- *Busa (Gipuzkoa) + Iparragirre Sagardotegia* *MD4 Aukera - 50 €*
- *Autobusa (Gipuzkoa) Soilik* *AD5 Aukera - 15 €*

IZEN-EMATEA ETA ORDAINTZEA:

Hurrengo esteken bidez egin daiteke (Abuztuak 1 baino lehen):

- Ctrl+click: [2023kooroi zapenezko egunak | Kometa Sarearen Lagunak](#)
- <https://amis-comete.assoconnect.com/collect/choice/326650-o-2023ko-irailak-kometaren-oroi zapenezko-egunak>



GEHIAGO JAKITEKO

“Comète” sareari buruz eta egingo ditugun ibilbideei buruz gehiago jakin nahi izanez gero, Juan Carlos Jiménez de Aberásturi-ren liburua espresuki gomendatzen dugu: *Camino a la libertad: La red de evasión Comète y la frontera vasca durante la II Guerra Mundial* (Txertoa 2019). Era berean, bere liburua den *Askatasunaren bidea. Florentino Goikoetxea eta beste hernaniar batzuk nazismoaren aurkako borrokan Bigarren Mundu Gerran* (Hernaniko udala 2006) gomendatzen dugu.

Gainera, Iurre Telleria eta Enara Goikoetxearen filma *Azken bidaia* (Moztu Filmak 2011) ere gomendatzen dugu.

Hurrengo webgunea ere oso gomendagarria da, sarearen informazio ugariarekin:

 <https://evasioncomete.be/>

Bestetik, ibilaldi hau antolatzen dugun elkarteok ere hainbat informazio daukagu eskuragarri gure webgune zein sare sozialetan:


“Les amis du réseau Comète”-ren webgunea:

 <http://cometepaysbasque.blogspot.fr>

Comète Baztan – Bidasoa elkartearen webgunea eta sare sozialak:

 comete.eus (lanean)

 https://twitter.com/Comete_BaztBid

 https://www.facebook.com/people/Com%C3%A8te-Baztan-Bidasoa/100081547279954/?locale=es_LA

 https://www.instagram.com/comete_baztanbidasoa

INFORMAZIOA

COMÈTE BAZTAN - BIDASOA ELKARTEA. E-maila: bulegoa@comete.eus



OHAR GARRANTZITSUA:

Zailtasun handirik gabeko ibilaldia da. Hala ere, komeni da mendian ibiltzeko ohitura izatea eta ekipamendu egokiarekin joatea (mendiko botak, euritarako arropa, kapa, etab.). Komeni da, beraz, ibilaldian parte hartzen dutenek oinetako eta arropa egokiak eramatea, eguraldi txarrantzat aproposak.

Irailaren 9ko eta 10eko martxetan parte hartzen dutenek ur ugari, jatekoa, fruitu lehorrak edo, behar izanez gero, energia barrak eraman beharko dituzte.

Parte-hartzaile bakoitzak bere ardurapean egingo du ibilbidea, eta, beraz, bere aseguru partikularra izan beharko du. Antolatzaileek ez dute erantzukizunik izanen bertan gerta daitezkeen gorabeheren gainean.

Arropa eta ordezeko oinetakoak motxilan eramatea gomendatzen da, baita bainujantzia eta txankletak ere Bidasoa gurutzatzeko.